

# PROBA ESPEZIFIKOA

2019ko PROBA

**HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





## Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

### 1. Testu-iruzkina. (4 puntu).

Estatu Nagusiko buruzagi estimatua:

SAk terrorismo marxista erabat zapaldu ondoren bakarrik izan zituan posible mugimendu nazionalsozialistaren borroka eta iraultza nazionalsozialista. Armadari zagokiok nazioa babestea kanpokoan aurrean; barnean, berriz, SAri zagokiok iraultza nazionalsozialistaren garaipena, estatu nazionalsozialistaren existentzia eta gure komunitate nazionalarena ziurtatzea. Estatu Nagusiko buruzagi estimatua, gaur betetzen ari haizen kargurako izendatu hindudanean, krisi larri batean murgilduta zegoan SA. Batez ere hire merituei zor zaiek tresna politiko horrek hedatu ahal izatea handik urte gutxira indar hori, aukera eman zuena boterearen aldeko borroka garaipenera gidatzeko, etsai marxista garaituta.

Hortaz, iraultza nazionalsozialistaren lehen urtea amaitzean, ezinbestekoa zaidak, Ernst Röhm estimatua, hiri eskerrak ematea mugimendu nazionalsozialistari eta Alemaniako herriari egindako ezin ahantzizko zerbitzuengatik, eta adieraztea zein nagoen halabeharrari eskertua borrokalagun eta borrokakide gisa hi haizen bezalako gizonak emateagatik.

Bihotzezko adiskidetasuna eta esker oneko estimua adierazten diat.

Adolf Hitler

*Hitlerrek Ernst Röhm-i idatzitako gutuna, Völkischer Beobachter-en argitaratua 1934ko urtarrilaren 2an.*

Iturria: <https://mundosgm.com/24/el-interior-de-ernst-rohm/>

### GALDEKIZUNAK:

1. Sailkapena eta ezaugarriak
2. Ideia nagusiak
3. Testuinguru historikoa
4. Konklusioak



**2. Ordenatu itzazu kronologikoki informazio hauek: (2 puntu).**

- A. Israelen independentzia
- B. Benito Mussoliniren exekuzioa
- C. Aljeriaren independentzia
- D. Sadam Husseinaren erregimenaren porrota
- E. New Yorkeko Dorre Bikien eraso
- F. Salazar Portugalgo gobernuko buru
- G. Indiaren eta Pakistanen independentzia
- H. Bohemia-Moraviako Protektoratua sortzea
- I. Txekoslovakiako Belusezko Iraultza
- J. COMECON sortzea

**3. Egin ezazu irudi honen iruzkin labur bat (2,5 puntu).**



*Iturria: <https://www.elmundo.es/especiales/>*

**4. Defini itzazu, labur, termino hauek. Zerrendako seietatik hiru hautatu behar dituzu. (Ariketa osoa: 1,5 puntu. / 0,5 puntu definizio bakoitzeko).**

- 1. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala
- 2. Iranen eta Iraken arteko gerra
- 3. Erromako Ituna sinatzea
- 4. Gerra Hotza
- 5. Perestroika
- 6. Deskolonizazioa



## EBAZPENA HISTORIA OROKORRA (2019ko maiatza)

- **KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**

Galdera bakoitzaren ondoren, dagokion puntuazioa ageri da. Guztira, 10 puntu dira.

- **EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Irizpide orokorra

Erantzunen zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, egituratzea (batez ere, testu-iruzkinean), lexikoaren kalitatea eta hizkuntzaren zuzentasuna baloratuko dira.

Irizpide espezifikoak

- Zehaztasunez, koherentziaz eta era ordenatu batean erantzuten die galderei.
- Zuzen interpretatzen ditu mapak, grafikoak eta estatistika-taulak.
- Zuzen iruzkintzen ditu, alderdi nabarmen guztietan, emandako testua

### 1.

#### **Sailkapena eta ezaugarriak**

Adolf Hitlerrek Estatu Nagusiko bere buruzagiari, Ernst Röhm, idatzitako gutun bat da, *Völkischer Beobachter* (Herriaren Behatzailea) Alderdi Nazionalsozialistaren (NSDAP) aldizkari ofizialean argitaratua.

Narrazio-testu bat da, eduki politikoa duena, eta Hitlerren garaia aztertzeko iturri primario bat da, nahiz eta aldizkari batetik etorri. Testua gutun partikular bat da, baina alderdiaren propaganda-organoa zen aldizkari horretan agertu zen; beraz, benetan, kolektibo zabal bati zuzendua dago: alderdiaren afiliatu eta jarraitzaileak.

#### **Idea nagusiak eta testuinguru historikoa**

Erregimen nazia diktadura moduan sendotu zen garaian kokatu beharrekoa da gutun hau, Hitler kantzilertzara iritsi ondorengo aldirian (1933ko urtarrilaren 30ean).



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

2019ko MAIATZA

MAYO 2019

**HISTORIA OROKORRA**

**HISTORIA GENERAL**

Egilea, Adolf Hitler (1889–1945), Alemania naziko diktadorea izan zen 1945eko apirilaren 30ean bere buruz beste egin zuen arte, Bigarren Mundu Gerraren azkenaldian, Errusiaren eta aliatuen tropek Berlin setiatua zutenean.

Testuaren helburua laguntzailea zorientzea da, baina Hitlerren benetako asmoak ezkututzen ditu, zeren eta, iruzkinean ikusiko dugun bezala, handik hilabete gutxira Hitlerrek berak Röhme eta haren zuzeneko laguntzaileak hiltzea agindu baitzuen. Ondorioak, beraz, nabarmenak dira: testuak Hitlerren eta Röhmen arteko harremanen irudi bat sortzen du, ondorengo gertaerek gezurtatuko dutenak.

Testuak hizkera zuzena, xumea, are lagunartekoa, erabiltzen du, eta oinarrizko ideia bat jasotzen du: zer funtzio izan zuen SAK alderdi naziaren goraldean. 1934an, gutuna idatzi zen garaian, lau milioi kide zituen SAK, eta hain botere handia kezkarria gertatu zitzaion Hitlerri; horixe da Röhmen eroraldiaren jatorria, aurrerago ikusiko dugun bezala. SAK zeregin erabakigarria izan zuen Hitler boterera eramateko, Hitlerrek berak gutun honetan aitortzen duen bezala.

Dokumentuak baditu bigarren mailako beste ideiak batzuk ere. Testuan ageri den moduan, Hitlerrek eta beraren alderdiak aurre egin behar izan zioten etsai nagusia marxismoa izan zen, zehazki SPD alderdiak eta, batez ere, KPD (Alderdi Komunista) alderdiak ordezkaturak. 1933ko otsailaren 27an Reichstag erretzea oposizio komunista eta sozialista desagerraraztera zuzenduta egon zen. Asaldatzaile komunista bati egotzi zioten sutearen eragilea izatea, eta Hitlerrek komunisten aurkako jazarpen indiskriminatua agindu zuen. Beharbada, beste etsaia —iruzkintzen ari garen testuan ez da aipatzen— are gehiago gorrotatzen zuen diktadoreak. Juduak, alegia. Diktaduraren garaian, jazarriak izan ziren (Kristal Hautsien Gaua, 1938ko azaroaren 9–10ean), eta, Bigarren Mundu Gerraren urteetan, sarraskitu egin zituzten.

### **Balorazioa eta konklusioak**

Testuak Hitlerren eta gisako diktadoreen jokabide ziniko eta makiabelikoa adierazten du, zeren eta ez baitzaie axola beren adiskidetzat dituztenak saltzea eta desagerraraztea boterean mantentzearen. Horixe zen Hitlerren helburua SAKo buruzagiak hilarazi zituenean; hala konpondu zuen urte hartan zuen larria, SAKen eta armadaren artean hautatu behar izan baitzuen. Gutunean erreferentzia argiak ageri dira SAK alderdi nazioaren goraldean eta sendotzean zuen zereginari buruz eta armadak Alemaniaren kanpo-babesarenean zuenari buruz; gainera, Hitlerrek behin eta berriro aipatzen du zer etsai politikoren kontra ari den borrokatzen: marxismoa. Antimarxismo horrek azaltzen du zergatik lagundu zioten armadak —beldurrak baitzegoen 1918-19ko iraultza espartakista errepikatuko ote zen— eta klase ertainek —krisi ekonomikoak zigortuak eta Versaillesko Itunaren ondorioz sortutako frustrazio nazionalak elikatuak—.



<https://studylib.es/doc/39122/textos-comentados.historia-contemporanea-autor-tema-%E2%88%92-fec...>

2.

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| F | H | B | G | A | J | C | I | E | D  |

3.

Irudian, Berlingo Harresiaren eraikuntzaren une bat ageri da. Harresiaren eraikuntza eta, batez ere, erorialdia XX. mendeko historiaren unerik garrantzitsuenetakoak izan dira. Harresiak 28 urtez erdibitu zuen Berlin, eta familiak eta lagunak banandu.

Bigarren Mundu Gerraren amaieran, Alemania zatitu ondoren, Berlin ere lau okupazio-sektoretan banatuta gelditu zen: sobietarra, estatubatarra, frantsesa eta ingelesa. Komunisten eta aliatuen arteko harremanak okerragotuz joan ziren, hainbestera non bi moneta sortu baitziren, bi ideal politiko eta, azkenik, bi Alemania.

1949an, mendebaldeko hiru sektoreek (estatubatarra, frantsesa eta britainiarra) Alemaniako Errepublika Federala izena hartu zuten, eta ekialdeko sektorea (sobietarra) Alemaniako Errepublika Demokratikoa bilakatu zen.

Berlin erdibituta gelditu zen, eta 81 pasagune sortu ziren hiriko bi zonen artean. Sobietar ekonomia hondatuaren eta Mendebaldeko Berlinen ekonomia kementsuaren ondorioz, 1961. urtera arte ia 3 milioi pertsona atera ziren Ekialdeko Alemaniatik, eta kapitalismora jo zuten.

Alemaniako Errepublika Demokratikoa ohartu zen populazioa galtzen ari zela (batez ere, pertsona prestatuak), eta 1961eko abuztuaren 12ko gauean, behin-behineko harresi bat eraikitzea eta 69 kontrol-puntu ixtea erabaki zuen, 12 pasagune bakarrik zabalik utzita.

Hurrengo goizerako, Berlingo bi parteak bereizten zituen 155 kilometroko behin-behineko alanbre-hesi bat ezarria zegoen jada. Garraiobideak eten egin ziren, eta ezin zen alde batetik bestera igaro.

Hurrengo egunetan, adreiluzko murruren eraikuntza hasi zen, eta bertatik atera zituzten beren etxeak eraikitze-lerroan zituzten pertsonak.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

2019ko MAIATZA

MAYO 2019

**HISTORIA OROKORRA**

**HISTORIA GENERAL**

Urteak igaro ahala, ihes-saio asko izan ziren, eta haietako batzuk arrakastatsuak izan ziren; horrenbestez, harresiak handitze izugarriak izan zituen segurtasuna areagotzearen.

Berlingo Harresia, azkenean, 3,5-4 metro altuko hormigoizko pareta bat zen, barnealdea altzairuzko kablez sendotua. Goialdean, gainazal erdiesferiko bat ezarri zuten, inork ez zezan aukerarik hari heltzeko.

Harresiari atxikia, "heriotzaren zerrenda" deitutakoa sortu zen, honela osatua: zanga bat, alanbre-hesi bat, ibilgailu militarrez etengabe zaindutako errepide bat, alarma-sistemak, arma automatikoak, zaintza-dorreak eta eguneko 24 orduetan txakurrez lagundutako patruilak. Ihes egiten saiatzea kargagailua balaz betea dagoela errusiar erruletara jokatzearen parekoa zen. Hala eta guztiz ere, asko eta asko saiatu ziren.

1975ean, harresiko 43 kilometro heriotzaren zerrendako segurtasun-neurriez hornituta zeuden, eta gainerakoak hesiz babestuta.

*Iturria: <https://www.disfrutaberlin.com/muro-berlin>*

**4.**

**1.** Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala deklarazio-dokumentu bat da, Nazio Batuen Batzar Orokorrek bere 217A (III) Ebazpenean onartua 1948ko abenduaren 10ean, Parisen; 30 artikulutan jasotzen ditu oinarritzotzat jotzen diren giza eskubideak, San Frantziskoko gutunean oinarritua (1945eko ekainaren 26an).

**2.** Gatazkaren jatorria Xatt al-Arab ibaiaren ertzeetako lurralde bati buruzko antzinako liskar bat da. Ibai hori Tigris eta Eufrates ibaien bat egitetik sortzen da, eta petroliotan aberatsa den eskualde batean dago. Horrez gainera, Saddam Husseinek susmoa zuen Teherango erregimenak Irakeko populazio xii ugariaren altxamendua sustatuko zuela, eta horrek ere elikatu zuen gatazka. Saddamek kontuan izan zuen, halaber, Khomeiniren erregimenaren nazioarteko isolamendua, Estatu Batuekin (enbaxadaren eraso eta bahituak hartzea) eta Sobietar Batasunarekin etsaituta baitzegoen orduan.

**3.** 1957ko martxoaren 25ean Erroman sinatutako bi itunek Europako Ekonomia Erkidegoa (EEE) eta Energia Atomikoaren Erkidegoa (EURATOM) sortu zituzten. Akordio historiko horren sinatzaileak hauek izan ziren: Christian Pineau, Frantziaren izenean; Joseph Luns, Herbehereen izenean; Paul Henri Spaak, Belgikaren izenean; Joseph Bech, Luxenburgoren izenean; Antonio Segni, Italiaren izenean; eta Konrad Adenauer, Alemaniako Errepublikaren izenean. Erromako Ituna berretsi zuten "Seien" parlamentuek hurrengo hilabeteetan, eta 1958ko urtarrilaren lehenean sartu zen indarrean.

**4.** Gerra Hotza deritza Estatu Batuen eta Sobietar Errepublikaren Sozialisten Batasunaren artean piztu zen liskar politiko eta ideologikoari, biek nahi baitzuten beren hegemonia ezarri munduaren gainerakoan.



1945ean piztu zen Gerra Hotza, Bigarren Mundu Gerra amaitzean, eta 1991n amaitu zen, Sobietar Batasuna desegin zenean arma-erosketa handiak eragindako krisi ekonomikoaren eta 1989an Berlingo Harresia erortzearen ondorioz.

Dena dela, bi herrialdeen artean ez zen inolako gerrarik edo zuzeneko aurrez aurrekorik sortu, eta horren arrazoi nagusietako bat gerra nuklear bat pizteko beldurra izan zen. Horregatik deritzo gatazka honi Gerra Hotza.

5. Sobietar Batasunean Mikhail Gorbatxov boterera iritsi ondoren (1985) gauzatu zen erreforma-politika. Ezaugarri nagusiak hauek izan ziren: Mendebaldeko blokeko herrialdeetara irekitzea, sistema ekonomikoa nolabait liberalizatzea eta informazio-gardentasuna.

“Perestroika”k teknologia sustatu zuen, ordena jarri zen ekonomian, eta bultzada eman zitzaion merkataritza-askatasunari eta ekimen pribatuari. Armagabetearen alde egin zen, eta akordio batera iritsi zen Reagan lehendakariarekin 1987an, bi potentziek beren armategi nuklearrek murrizteko.

6. XIX. mendearen erdialdean, Europako potentziek —batez ere, Frantzia eta Erresuma Batua— Afrika, Asia eta Pazifikoko lurralde zabalak banatu zituzten beren artean, inperio kolonial handiak sortzeko asmoarekin. Mendebete eskas geroago, kolonia gehienak emantzipazioa lortu eta herrialde independente bihurtzeko borrokatu ziren.

### CURRICULUMAREN ETA GALDEREN ARTEKO ERLAZIOA

| GALDERAK | EDUKI MULTZOAK           |
|----------|--------------------------|
| 1        | 1. multzoa               |
| 2        | 1. multzotik 6. multzora |
| 3        | 1. multzoa               |
| 4        | 1. multzotik 6. multzora |